

herrera-bidebieta

Plan berezia
gora eta behera

Udaleko ordezkari ugari hurbildu zen lehengo asteazkenean Herrerara Plan Berezia bizilagunei azaltzeko asmoz. Bileran Herreran orain arte Udalak egin dituen lanak aurkeztu ziren eta bertara Gregorio Ordoñez eta Eugenio Danboriena zinegotzia, Ortiz de Zarate (Hiri Mantenu saileko teknikaria), Iñaki Zubizarreta (Herrerako Plan Bereziaren zuzendaria) eta Santi Peñalba (Plan Orokorreko ordezkaria) hurbildu ziren.

Bakoitzak bere alorrean

egindakoak jende aurrean esplikatu ondoren, herrertarrek, Plan Bereziak nora eramango gaituen jakin nahi izan zuten. Iñaki Zubizarretak herrertarren alegazio guztiak kontutan hartu baditu ere, oraindik badaude zenbait kezka. Lasa-Enea eta Itur-Gain etxeetatik metro gutxitara errepidea pasako denez, udalak etxeak botatzea planifikatu zuen, bizilagunek bizitza kalitate hobea izan dezaten. Baina bertako bizilagunek ez dute oso argi ikusten beren etorkizuna eta udal-txearen proiektu honi uko egin diote. Bizilagunen nahi hori beteko balitz, etxeak mantendu egingo lirateke eta errepidea lehen



Roxali

eta bigarren solairu artean pasako litzateke. Teknikariaren esanetan bizilagunen borondatea udalak errespetatu egingo du.

Bileran gertatuko anekdota Itur-Gain etxeko nagusiak jarri zuen. Berak, duela aste batzu, bere etxearen egoera larria salatzen zuen Udal eskutitz bat

jaso zuen. Eskutitz honek zioenez, bi hilabeteko epea zeukan etxea konpontzeko. Epe honetan Itur-Gain etxea bertan behera botako dutela jakin du, dena den eskutitzak oraindik indarrean jarraitzen du.

Zer egingo?

LARRAITZ GARMENDIA (Tfnoa: 391267)

ETORKIZUNA ETA INDARRA

ENNA

Herreroen Batzaia

bozkatu

HERRI BATASUNA

Lorategian plan berria

Plan Orokorra aurkeztu da jadanik auzoan. Marrutxipi, Arrobitxulo, Baratzategi, Lau Haizeta eta Julimasene izango dira aldaketa handiena jasango dutenak.

Proiektu ugari aurkeztu dira, baina auzokideen eritziz, auzoaren beharrak ez dira betetzen plan honetan. Auzo elkarteek, polikiroldegi baten beharra azaldu zuten, baina oraingoz ez da planaren barruan sartzen. Bestalde, eztabaida gogorak sortu ziren Hiper Eroskiren eraikuntzaren aurrean. Parke naturala eta zentro komertziala ez datoz bat auzokideen ustez eta zona berdearen deuseztapena eta denda txikien gainbhera aipatu ziren puntu nagusi bezala.

Egun batzuk lehenago, Zulo-Zahar Urbanismo Komisiaok Plan Orokorren aldaketak eta alternatibak aurkeztu zituen.

azko irailean hasi ziren lorategi planaren lanak dagoeneko amaitzean daude, guztia ekainaren azkenalderako bukatua egotea espero da.

Lorategi hauek, Mons pasealekuan barrena, Pablo Sorozabalaren enparantzaraino iristen dira. Eztieta parkean 54 landare espezie landatuko dira, lur gorri eta beltzez inguratuta.

Lorategi mota honen bereiztasuna diseinuzko parkea dela da. Zelaiei forma ematen zaie, hormigoizko irudiak jarriaz. Iruvien barruan, landare eta lur mota desberdinak landatzen ari dira, osotasunari kolorea emanez. Alboetan, pinuz osatutako langa ipiniko da, autopistako soinuak murrizteko.

Ureztatze sistema berria

Lorategi honen berrikuntza nagusia, ureztatze



Imanol


sistema da. Aspertsioz funtzionatzen duen sistema automatikoa da, hau da, behetik gora botatzen da, ez mangeraren bitartez. Momentu honetan dagoen modernoena da. Gastatzen den ur kopurua konputagailu batek kontrolatzen du eta ur asko aurreratzea lortzen da.

Euskal Herrian, horrelako lorategi mota bat jartzen den lehen aldia da, aurretik Barcelona eta

Sevillan ere sistema hau erabili delarik. Berrikuntza handia da eta bere kostua, 700 milioi ingurukoa da.

Plangintza hau Eusko Jaurlaritzak eraman du aurrera eta garantiatzeko lehen urtea pasatzean, Udalaren esku geratuko da. Mantenedua oso garrantzitsua da, zainduko ez balitz, egindako lan guztia galduko litzateke.

NAGORE IRASTORZA (Tfnoa.: 28 57 49)



SAGARDOTEGIA - ERRETEGIA
SAGAR-ZULO

Tel. 52 35 41 LEZO

SAGARDOTEGIA - ERRETEGIA
Sagardo naturala - eguneko menua

- **Berezitasunak:** Bixigua, zapua, makailu frijitua, txuleta saihetsak,...

Altamira gaina, Tfnoa.: 52 35 41. LEZO

BIKAIN
AKADEMIA

Baso-Txiki, 36-38 Behea
☎ 28 87 34 INTXAURRONDO

NOROABE ≡≡≡

≡≡≡ musika eskola

- Eusko Jaurlaritzak onarturiko eskola.
- Oinarrizko eta Ertain mailak
- 1966ko Plangintza
- Oinarrizko LOGSE maila

Txofre plaza, 13 Tfnoa.: 29 07 39 DONOSTIA